



ARRASATEKO UDALA

ARRASATEKO UDALAREN ETA ARKODI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA
MONDRABERRI.COM WEB GUNEA ELKARLANEAN
ANTOLATU ETA FINANTZATZEKO

Arrasaten, bi mila eta hamaseiko uztailaren hogeitabederatzian.

BILDURIK

Alde batetik, Iker Arana Fernandez jauna, NA 72.584.357Z duena, adinez nagusia, Arkodi elkartearen izenean eta errepresentazioz.

Eta bestetik, Maria Ubarretxena Cid, Arrasateko Udalaren alkate-udalburua, haren izenean diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dago eta.

Bi aldeek, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

HAUXE AZALTZEN DUTE

Azken urteotan Arrasaten eta Debagoiengan herri eta eskualde komunikabideen alde egindako lan eta ahaleginaren fruitu emankor bilakatu dira herritarrengandik hain harrera ona eta beroa jaso duten Goienkaria eta Goiena Telebista eta, oraintsuago, interneten Arrasateko Atari bihurtu den "Mondraberrri" egunkari digitala.

Mondraberrri web gunea Portaloi elkarteak sortu zuen 2004ko azaroan, eta harrez gero, egunero-egunero jardun du herriko albiste eta gorabeherak internetez zabaltzen, modu horretara beste ekarpen bat eginez gure herriko informazio alorrera. Aintzat hartzeko moduko ekarpena, internet erabiltzen duelako, eta denetariko gaiak jorratzen dituelako. Hainbat urtean Portalaloi elkarteak Mondraberrri.com kudeatzen aritu ondoren 2013an Arkodi elkarteak hartu zuen bere gain.

Honen guztiaren ondorioz, euskarari eta herriaren errealitatearen informazioari mesede egiten dion proiektua da Mondraberrirena, Arrasateko Udalaren ustez.

Udalak modu positiboan hartzen du Mondraberririk egiten duen lana eta hori guztia dela eta, hitzarmen hau izenpetzen dute, ondorengo klausulen arabera:

KLAUSULAK

Lehena.- Arkodi elkarteak eta Arrasateko Udalak, Mondraberrri komunikazio proiektua dela eta, elkarlanean 2016. urtean burutuko dituzten jardueretarako diru laguntza xedatzea da hitzarmen honen helburua.

Bigarrena.- Hitzarmen honen bidez Mondraberriren jarduerak subentzionatuko ditu Arrasateko Udalak, eta hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera burutuko ditu Mondraberririk jarduera horiek.

Hirugarrena.- Arrasateko Udalak 2016. urtean 30.000 €-ko diru laguntza emango dio Arkodi elkarteari, Mondraberrri web gunearen jarduerak finantzatzeko. Hitzarmen hau sinatu eta berehala jasoko du diru laguntzaren %60a eta gainerakoa diru laguntza zuritutakoan. Bestalde, datorren urteko diru laguntza erabaki



ARRASATEKO UDALA

bitartean, aurrerakin hauek egingo dizkio Udalak: martxoan, aurtengo diru laguntzaren %30a; ekainean, aurtengo diru laguntzaren %30a, urteko diru laguntza erabaki gabe badago; eta gainerakoa, diru laguntza zuritzean.

Laugarrena.- Mondraberrik konpromiso hauek hartzen ditu:


- Mondraberrik berak landuko dituen informazio eta eduki guztiak euskaraz emango ditu argitara.
- Arrasateko Udalaren jardueren informazioa emango du, objetibotasunez eta zuzentasunez.
- Zabaltasunez jokatu du informatzerakoan, errealitatearen ispilu izanik, batzuei eta besteei leku duina eginez.
- Herriko kulturgintzak eta kirol munduak tratu berezia jasoko dute Mondraberrin, elkarbizitzarako duten garrantziaz kontuan izanik.
- Mondraberrik autofinantzaketa mailan gora egiteko politika eraginkorrek sustatuko ditu.
- Urteko ekintzen azalpen memoria aurkeztuko du Mondraberrik datorren 2017ko urtarrilaren 15a baino lehen, bai eta proiektuaren finantza egoerak (egoeraren balantzea eta galera eta irabazien kontua)

Bosgarrena.- Koordinazio mekanismoak eratuko dituzte bi aldeek, erabakiak hartu aurretik adostasuna lortzea beharrezkoa den kasuetarako

Seigarrena.- Arrasateko Udala babesle moduan agertuko da, bai Mondraberrin bai eta ekintza horien kartel iragarleetan ere.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna adierazteko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute bildutakoek.

ARRASATEKO UDALEKO
ALKATE-UDALBURUA



ARKODI ELKARTEKO LEHENDAKARIA

